



Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

ESKOLA ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAN GERTA DAITEZKEEN INDARKERIA KASUETARAKO JARDUTEKO PROTOKOLOA

IRUÑEKO UDALA

2025-2026 DENBORALDIA





Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

AURKIBIDEA

1. HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN GERTA DAITEKEEN INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA	3
1.1. SARRERA.....	3
1.2. DEFINIZIOAK.....	3
1.3. APLIKAZIO EREMUA.....	4
1.4. KOMPROMISOAK	4
1.5. BABES ORDEZKARIA.....	5
1.6. PREBENTZIO JARDUERAK ETA ARRISKUEN AZTERKETA TXAPELKETA KUDEATZEN DUEN ENPRESAREN PARTEZ	5
1.7. KALTEA EDO INDARKERIA JASATEKO ARRISKUAK EDO ARRISKU-EGOERA POTENTZIALEN AZTERKETA	6
1.8. ESKU-HARTZEKO JARDUKETAK	7
1.9. JARDUTEKO PROTOKOLOA	8
1.10. INPRIMAKIAK: LAGUNTZA ESKAERA ETA DATU-BILKETA KASU LARRI EDO OSO LARRIETARAKO	9

Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN GERTA DAITEKEEN INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

1.1. SARRERA

Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak (LOPVI) agindu batzuk betezera behartzen ditu administrazio publikoak eta kirol eta aisialdi erakundeak, ingurune seguruak sor ditzaten eta adingabeak indarkeriaren aurrean erabat babes ditzaten.

Legearen IX Kapitulua (47 eta 48 artikulua) adingabea kirolaren eta aisialdiaren arloan babesteari buruz hitz egiten du.

Ezartzen da administrazio publikoek **kirol arloan ingurune seguruak eraikitze**ko **protokolo batzuk arautuko dituztela** eta hauek jarraitu behar direla haurren eta nerabeen aurkako indarkeri egoerak saihesteko, detekzio goiztiarra egiteko eta haietan esku hartzeko.

Nafaroako Kirolaren Institutua (NKI) protokolo bat onartu du martxoaren 8ko 84/2023 Ebazpenetik abiatuta; eta protokolo hori Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligaren beharrei egokitu da, hori dela eta Liga honetan parte hartzen dute taldeek kontutan hartu beharko dute.

1.2. DEFINIZIOAK

Indarkeria: "Indarkeriatzat hartzen da adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dizkien ekintza, ez-egite edo tratu arduragabe oro, baldin eta haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen badu, edozein dela ere horiek egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala" (LOPVI 1.2 art.)

Nolanahi ere, honako hauek joko dira indarkeriatzat:

- Tratu txar fisiko, psikologikoa edo emozionala..
- Zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak.
- Arduragabekeria edo tratu arduragabea.
- Mehatxuak, irainak eta kalumniak.
- Esplotazioa, sexu-indarkeria barne.
- Ustelkeria, haur-pornografia eta adingabeen prostituzioa.
- Eskola-jazarpena, sexu-jazarpena eta ziberjazarpena.
- Hala eskatu gabe, pornografiarako sarbidea ematea.
- Sexu-estortsioa.
- Genero-indarkeria.
- Feminizidioa.
- Genitalen mutilazioa.
- Pertsonak arbuiatzea edo gorrotatzea sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik eta sexuedo genero-identitateagatik.
- Gizakien salerosketa, edozein helbururekin.
- Behartutako ezkontza, haurren ezkontza.
- Datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, bai eta familian indarkeriazko edozein jokabide izatea ere.
- Desgaitasunen bat duten pertsonen aurkako jazarpena

Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

Tratu ona: "Haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideak errespetatuz, printzipio hauek aktiboki sustatzea: elkarrekiko errespetua, gizakiaren duintasuna, bizikidetzatza demokratikoa, gatazkak modu baketsuan konpontzea, legearen babes bera izateko eskubidea, aukera-berdintasuna, eta haurrak eta nerabeak diskriminatzeko debekua" (LOPIVI 1.3 artikulua).

Ingurune segurua: "Haurren eskubideak errespetatzen dituen eta sustatzen duena babesa ematen duen ingurune bat, izan fisikoa, psikologikoa, soziala edo digitala." (LOPIVI 3 m artikulua).

Sexuagatik jazarpena: "Pertsona baten sexuaren arabera egiten den edozein jokabide da, haren duintasunaren aurka egiteko beldurgarri, umiliagarri edo iraingarri den ingurua sortzeko asmoarekin".

Sexu-jazarpena: "Sexu-izaerako edozein portaera, ahoskoa edo fisikoa, pertsona baten duintasunaren aurka egiteko asmoa duena edo ondorio hori eragiten duena, batez ere beldurgarria, umiliagarria edo iraingarria den ingurua sortzen denean".

Desgaitasunagatik jazarpena: "Pertsona baten desgaitasunaren arabera egiten den edozein portaera, tratua, adierazpen edo ekintza haren duintasunaren aurka egiteko".

1.3. APLIKAZIO EREMUA

Protokolo hau Eskola Areto-Futboleko Udal Ligagari aplikatuko zaio eta ez ditu ordezkatzeko Ligan parte hartzen duten taldeen erakundeek bete beharreko protokoloak

1.4. KONPROMISOAK

Eskolako Futboleko Ligak konpromisoa hartzen du haren parte diren haur eta nerabeendako (NNA hemendik Aurrera) ingurune seguruak eta tratua onekoak eraikitzeke.

Bereziki, hitzematen du lan eginen duela indarkeria-jokabideak prebenitzeko, saiaturiko dela jokabide horiek ager ez daitezen, eta aurre eginen diela gerta daitezkeen salaketek eta kexek. Konpromiso hauek hartzen ditu:

- Haurrek eta nerabeek beren prestakuntzaren eta garapen integralaren alderdi guztietan aktiboki parte har dezaten sustatzea.
- Entitatean egiten diren kirol eta aisialdi jarduerak (Liga bera, Bukaerako Festa eta Multikirol jardunaldia) programatu eta diseinatzerakoan, oinarri hartzea adingabeen eskubide eta askatasunekiko errespetua, honako hauek barne: sexu eta genero aniztasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza eta indarkeria mota ororen debekua.
- Ezarritako jarduketa-protokoloa hedatzea eta aplikatzea.
- Agintari eskudunei informazioa ematea delitu diren indarkeria kasuak gertatzen direnean.
- Lanean diharduten langileek sexu-deliturik egin ez izanaren ziurtagiria dutela bermatzea, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera.
- Haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideen arloko hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua bultzatzea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalentzat.
- Erakundean aurkeztutako laguntza-eskaerak azkar eta eraginkortasunez ebaztea.

Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

- Indarkeriazko edozein jokabideren berri eman duten biktimak edo hirugarren pertsonak babesteko neurriak hartzea.
- Kasu posible batekin lotutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta zaintza egokia bermatzea, datu pertsonalak babesteari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa).
- Monitorizazio-sistema bat ezartzea, bermatzeko betetzen direla adingabeen babeserako protokolo horiek; aldizkako informazioa eskatzea, urteko memorian datuak sartuta.
- Edozein motako tratu txar, jazarpen edo abusuren aurrean gaitzespena eta erantzuna sustatzeko sentzibilizazio ekintzak egitea, mezuak sare sozialetan, webgunean, APP-an, liburuxketan, etab.
- Neskak kirol jardueran ikustaraztea, sare sozialetan, Gesporteko eta Iruñeko Udaleko webgunetan hala nola antolatzaileak egindako gainerako dokumentu, argazki eta ekitaldietan.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak sentzibilizatzeko eta errespetatzeko ekintzak egitea, Iruñeko Udalaren Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligan parte hartzen dutela ikusaraziz.

1.5. BABES-ORDEZKARIA

Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligak Maite Rebollo du babes-ordezkarri bezala.

Bere eginkizunak dira:

- Erakundearen jarduera-protokoloa proposatzea.
- Ezarritako protokoloak hedatzea eta betetzea.
- Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatu den kasuetan, dagozkion komunikazioak hastea.
- Taldeetako babes ordazkarien artean erreferentziazko pertsona izatea, zalantzak, indarkeri egoerak eta abar daudenean.
- Adingabeentzat erreferentziazko pertsona izatea, harengana jo dezaten beren kezkak adierazteko.
- Neurriak hartzea kirola, jarduera fisikoa, kultura eta aisialdia ez daitezen diskriminazio-uneak izan.
- Monitorizazio-sistema bat (erregistroa) ezartzea eta jarraipen txostenak egitea. Denboraldiaren amaieran, urteko memorian txertatuko dira.
- Ezagutzen diren kasuen berri ematea Iruñeko Udalari.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera Babes ordezkaritari dagokion beste edozein eginkizun.

1.6. PREBENTZIO JARDUERAK ETA ARRISKUEN AZTERKETA TXAPELKETA KUDEATZEN DUEN ENPRESAREN PARTEZ

- Babes-Ordezkarria izendatzea eta Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligaren barrenean jakinaraztea nor den eta zeintzuk dira bere eginkizunak.
- Protokoloa idaztea eta parte hartzen duten taldeen artean argitaratzea hala nola *Gesport Gestion Deportiva* enpresak Ligarako kudeatzen dituen mugikorretarako aplikazioetan, webgunean, sare sozialetan, eta bestelako komunikabideetan.
- Haurren eta nerabeen oinarritzko eskubideen arloko hasierako eta etengabeko prestakuntza espezializatua sustatzea adingabeekin ohiko harremana duten profesionalen, LOPIViren 5. artikularen arabera. Babes ordezkarriak Nafarroako Kirolaren Institutuko "Adingabea babesteko protokoloaren erabilera" izeneko prestakuntza izango du.



Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

- Parte hartzen duten taldeen babes-ordezkariek ezagutzea eta haiekin komunikatzea, Ligaren garapena monitorizatzeko.
- Iruñeko Udalak egokitzen jotzen dituen berezko beste jarduketak batzuk.

1.7. KALTEA EDO INDARKERIA JASATEKO ARRISKUAK EDO ARRISKU-EGOERA POTENTZIALEN AZTERKETA

Egoerak aztertu behar dira, eta saihestu egin behar dira honako jokabide hauek: indarkeria-kasu izatera iristen ez direnak baina desegokiak eta gaizki ulertzeko modukoak direnak, edo berez arriskuak ekar ditzaketenak. Edo zentzuz begiratuta, adingabeari deserosotasuna, ezongia edo larritasuna eragin diezaiokeen beste edozein.

ARRISKU-EGOERA	PREBENTZIO-EKINTZAK
Bilerak	Ez izan elkarriketarik adingabeekin gune itxietan edo bakarka
Joan-etorriak	Ez egin joan-etorriak adingabearekin bakarrik ibilgailu pribatu batean
Sare sozialak	Ez erabili sare sozialak adingabeekin komunikatzeko
Aldagelak	Errespetatu aldageletan haur eta nerabeak aldatzen ari diren uneak. Inoiz ez da mugikorra aldageletan erabiliko
Kontaktu fisikoa	Saihestu beharrezkoa ez den kontaktu fisikoa, eta ez inbaditu gorputzaren intimitatea eta intimitate psikologikoa
Komunikazioak	Ez erabili hizkera desegokia (zakarra, sexista, ironikoa) Saihestu konnotazio edo izaera sexuala duten txantxak, iruzkinak eta jokoak.
Jarraibideak, aginduak...	Kirolarien jarduerak gutxiesten dituen jarraibiderik edo agindurik ez eman, ezta gutxiago baloratua, gutxietsia, etab sentiaraz diezaiokeenik ere. Inoiz ez da jokalaria galdekatuko, hitz egin eta gertatutakoa modu pisitibo eta konstruktiboan kontatuko da.
Harmailak, bisitariak, ikusleak...	Harmailetan, bisitarien eta ikusleen aurrean esku-hartzea, taldeetakoko jokalaria mesrextatzen eta gaizki sentiarazten dituzten egoeretan; nolana ere, babes-ordezkariek bertan behera utzi dezake partida.
Taldekidetako arteko harremanak	Gatazkak indarkeririk gabe konpondu, erabaki positiboak, konstruktiboak eta bi aldeak errespetatzen dituenak, gatazka konpondu den jakiteko jarraipena egitea.
Beharrezkotzat jotzen diren bestelako jarduerak	Aurrez tipifikatu gabeko arrisku egoeren arabera planteatuko lirateke

Eskola Areta-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

1.8. ESKU-HARTZEKO JARDUKETAK


- Indarkeriaren biktima den edozeinek, edo egoera horien berri duenak, laguntza eskatzeko aukera izanen du ahoz edo idatziz, Babes-Ordezkariekin harremanetan jarrita.
- Behin Babes-Ordezkariek laguntza-eskaera "LAGUNTZA ESKAERA INPRIMAKIA"-ren bidez jasota gehienez ere hiru egun balioduneko epean hasiko du prozedura. Prozedura formalak eskaera idatziz aurkeztea eskatzen du inprimakia betez eta bidaliz.
- Babes-Ordezkariek erreklamazioaren xede den pertsonari jakinaraziko dio erreklamazio bat aurkeztu dela eta zer jokabide iraingarri egozten zaion.
- Babes-Ordezkariek, inplikaturako pertsona guztien intimitaterako eta duintasunerako eskubidea errespetatuz, bilerak bana egingen du alderdi bakoitzarekin, baita lekuko posibleekin ere, gertaerei buruzko informazio guztia biltzeko.
- Kasua arina denean, gatazka Babes-ordezkariekin bitartekaritzaren bidez konpontzen saiatuko da.
- Egoera larrietan eta oso larrietan Babes ordezkariek datu argigarriak eskatuko ditu "KASU LARRI ETA OSO LARRIETARAKO DATUAK ZABALTZEKO INPRIMAKIA" erabiliz. Horrelako kasuetan Nafarroako Kirolaren Institutuko Bitartekaritza Bulegoaren bitartekaritza eta aholkularitzapean, kasu bakoitzari dagozkion neurriak hartuko dira. Bitartekotza horren esparruan ez zaizkio inprimakiaren datu pertsonalak emango bulego horri ezta beste erakunde edo pertsona ere ez.
- Babes-ordezkariek uneoro jakinaraziko dizkio Iruñeko Udalari jasotako laguntza eskaera formal guztiak (arinak, larriak eta oso larriak).
- Babes-Ordezkariek txosten bat egingen du ateratako ondorioekin, eta Iruñeko Udalari helaraziko dio, hala badagokio, dagozkion jarduketak egin ditzan. Txosten hauek laburtuak denboraldiaren amaierako memorian txertatuko dira.
- Babes-Ordezkariek egoki deritzen kautelazko neurriak hartzeko proposatuko dio erakundeko organo eskudunari, akusazioaren larritasuna kontuan hartuta. Hartutako neurriek ez diete inola ere kalterik eraginen ustezko biktimak kirol edo aisialdi jarduerak garatzeko dituen baldintzei.
- Protokolo honetan jasotako egoeretako batzuk delitu gisa tipifikatuta daude Zigor Kodean, eta salatzaileari jakinarazi behar zaio Fiskaltzara jo dezakeela.
- Kasu horretan, prozedura hau abian jarriko da, jakinik egoera horretan egin daitezkeen ekintzetako bat dela, baina ekintza gehiago ere egin daitezkeela edozein instantzia administratibo edo judizialean.

Babes-ordezkariekin beste edozein kontsulta egiteko erabili dezakezu 948 153106 telefonoa edo maite@gesportsl.es posta elektronikoa.



Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2025/10/03

1.9. JARDUTEKO PROTOKOLOA



Eskola Areto-futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen indarkeria kasuetarako jarduteko protokoloa.
Eguneratze data: 2024/10/01

1.10.INPRIMAKIAK: LAGUNTZA ESKAERA ETA DATU-BILKETA KASU LARRI EDO OSO LARRIETARAKO

Antolakuntzak Ligaren webgunean, www.ligafutbolmunicipalpamplona.es , Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligan adingabeei zuzendutako balizko indarkeria kasuetarako jarduera protokoloaren barruan laguntza formalki eskatzeko inprimaki elektronikoak eskuragarri jarriko ditu.

Laguntza eskatzeko "Laguntza eskatzeko inprimakia" erabiliko da beti, protokoloaren ezinbesteko hasiera gisa.

Aurreko inprimakia erabili ondoren eta Babes-ordezkariak egindako balorazioaren arabera, beste inprimaki bat betetzea eskatu ahal izango da: " Kasu larri edo oso larrietarako datuak zabaltzeko inprimakia".